


Amurrio

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak

A MU RRIO





*Fábrica de licores Manuel Acha
Fotografía: Asociación Aziarna*

Amurrio

Berde, musker, berardin, orlegi. Aiara Haranean, dena berdea da. Paisaia berde honetan larreak eta han-hor-hemen basetxeak, sakabanaturik edo baserri eginik, eta sakonean haitza, ortzia ebakitzen duen sorbatz zorrotzeko “aia”, hegiz hegi luzatzen den lerro gailurtua, Gorobel. Bada, honako eskualde naturaz beteriko honetan, Amurrio, itxuraz landa-herri, eta honela ere hainbat lantegi, antzinako ola, egungo fabrika, industriaren altxor tiki ugari, hainbat sendiren elika-bide izan, dena. Erdigunea hiritua, aldamenetan olaldeak izan zitezkeen industrialdeak, eta inguru zabalean hainbat herrixka edo basoko herri, baserri. Hori guztiori eta bertako lagunak, lehengoarekin oraingoa elkargoan osatzen dutenak, bizimodu lasaia baina lanaren erritmoa moteltzen ez duena, beti bizi. Handixkoa eta behar diren zerbitzu guztiak eskumenean. Amurriok gehien eskatzen denari ere emaiten daki, inora bagerik.

Gasteiztik urruntto, Bizkaiarekin mugan, eta, beraz, Bilbotik hurtxeago, Athletic-etik hurbiltxeago, beharra batetik nahia bestetik. Bada amurriolarrik Gasteizen hiruzpalau aldiz baino egon ez denik.





Aztarna Elkarreak utzitako argazkia

Amamarengandik bilobarengana

Lehen eta orain

Margari
Jauregui-
rekin

Amurrio



Margari Jauregi eta bere biloba

“

*Orain ez da
gertatzen, den-dena
egina dute eta”*



Hamairu urterekin emakumettoak



◀ *Margari, andereñoarekin eta ikaskideekin.
(Sendiaren bilduma)*

Margari Jauregi antzinako landetxe haietariko batean jaio zen, Aldaiturriagan, 1937an, gudu betean. “Orduan, ukuiluko argia piztuz gero, gelako argia itzaltzen, berez, indarririk ez eta, bata isio bestea “amatau”. Hala bizi izaiten zen”, gogoratzen du, anbiolako modu zahar haietakoaz.

Guztira, neba-ahizpetan, zazpi, eta ama gazterik hil zelako, Margari hamabi urteko zela, bost ahizpak etxeko andere, eta bata ezkondu ondorean hurrengoa nagusi, aita igeltsero edo hargin lanetan eta soroan aritzen zen bitartean.

Neba biek eskola hartu ahal izan zuten, ikasi, emakumezkoak, ostera, gehienetan josten ikastera joan bai eta gehiago ez.

Biziera erraza ez zen, honela ere goserik ez. Klean ez legez, baserrian beti baratzeak, ortuak, soroak zerbait ekoitzi, bai, eta eskerrak, jateko lain. Hori bai, he!, hondakinik ez. “Orduan asko ikasi genuen, eta gaur den egunean, guttiagoz bizi ahal izaiteko beharrezkoa ez dugu peitu”.





▲ *Margari Jauregiren ahaiko handia.
(Sendiaren bilduma)*

Taberna bat ere zapaldu ez

“Xuhur-xuhur bizi izan arren”, aisialdito bat edo bat eta txibizkeriaren bat edo beste bagerik ez ziren. Batzuetan La Catequesis delako zinetokira joan ohi ziren, eta jaiegunetan dantzara, hots, orduko “berbenea” edo “el baile”.

Udan, “komeriak”, hau da, herriko plazan lau xeble edo txerpolar edo titiritari barregarrikeriak egitean. Gazteak, ordea, haiek orduan; jostun-etxean ere hamaika txantxa! Orduko adiskide gazte haiek oraindik adiskide, eta elkar ikustean gozoro.


Gogoan du orduko jota kantu haien hotsa, hoskorailuz ozendurik, eta gogoan mutilek dantzan egiteagatik ordaindu behar zutela, neskek ez, erreal bana, eta Posadas ere gomutatzen du, txistua jo eta jo, dantzari gazteak neke-neke eginda gelditu arte.

Ha lako gaztaroa eta halako gaztetasuna, Margarirena eta Amurrioko beste beredin emaztekirena; senargaia ukan arte txiribogara sartzen ez eta inoiz geroago sartuz gero kafesnea, akeita esnearekin alegia, baino ez edateko.




“

*Sartu nintzen
lehen aldian
senargaiagaz
eta kafesne bat
edatera”*



*Zezenketariak eta Manolak jaietan
Aztarna Elkartearen argazkia*



“

*Errepidean ez
zegoen argirik,
eta besotik
helduta joateko
probetxatzen zen”*




Morroiloetatik ikuzgailuetara

Tomas Arberas betidanik ezagutzen zuen, herrikide, eta ezkondu zirenean, 60. hamarraldian, harek bere anaia Felipegaz burdindegia kudeatzen zuen. “23 urterekin ezkondu nintzen harek gurasoak ez baitzituen, eta “konpontxoa” lehenago egin beharra. Oro ondo jazo zen. Nire garaietan zer guztiak ondo zertzen ziren, ez ginen hain aise banatzen”.

Hasieran, burdindegian morroiloak eta beste gauza guti gehiago saltzen zituzten. “Ordura arte etxeetako atea makilatatu batez ixten ziren, baina ohitura hura aldatzen hasi zen”. Bazkide biak harik laster nor bere gain jarri ziren, eta Tomas Margarirekin euren saltoki eurenaz jabe egin ziren, herriko erdialdean. Orduko toki haretan salmentak beti goiti.

Amurrio ez da inoiz industria-herri, funtsean, honela ere enpresa handi batzuk iristen hasi ziren (Tubacex, Tubos Reunidos,...) eta dena, berainez, aldatzen hasi zen, garatzen eta bilakatzen hasi zen. Jendeak etxeetan berogailua, ikuzgailua eta beste gailu batzuk ipinten zituen, butano, ura, e.a. ere etxekotu ziren, eta hura guztia lanik asko bai baina burdindegi batentzat irabazpide ere zen.



Bizitzak irakatsita

Margarik 65 urte zuenean utzi zion saltokian lan egiteari, jubilatutik, baina noiz edo noiz dendara joaitea maite du eta bezeroekin hitzaspertu bat egitea, oraindik. Bere bizitza hori izan da; eta eskolan ikasteko aukerarik izan ez zuen arren, fakturak nola egin ondo ikasi zuen, eta iturgintzan ohiz erabili diren neurriak ere ikasi berak, bai eta torlojoenak ere, gutti ez baita!

- ▲ *Corral bagoi-lantegiko beharginak Aztarna elkarteak*
- ▶ *Etxeguren Gotzainaren plazaren bedeinkapena Aztarna elkarteak*

Amurriora lantegi handien etorrera hasi zenean hantxe haiek lekuko, eta leku beretik jendearen eta etheen aldakuntzen ikusle: “ez zegoen estufarik edo berontzirik, ez presiozko eltzerik edo lapikorik, ez hozkailurik”. Beste era batera bizi zen, ordura arte, eta, bertatik bertara bezala, lantoki ugari eta emakumezkoak ere etxez ateko lanetan esku hartzaile, bai eta ezkonduz gero ere, amatu ondorean ere bai, lehen ez bezala, zeren

“lehen, ezkonduz gero lanari utzi behar zenion edo bertatik egozten zintuzten”.
“Askatasuna horixe da, zeure dirua irabaziz gero ez duzu senar txarririk jasan beharrik; lehen ez zegoen besterik, eutsi eta aurrera”.

Lantegiekin batera herrikide berriak ere iritsi ziren, bizilagun berriak, sendi osoak herrian.

Bilakaera orokorra izan zen eta Amurrio zeharo aldatu zen, biziki bestelakatu zen, antzinako biziera atzean utzirik, “lurretik bizi zenean, batez ere, oso gogorra baitzen”.

“

Lehen, ezkonduz gero, lanari utzi behar zenion, edo bertatik egozten zintuzten”





*4x4 beribilean langileakFoto:
Aztarna elkarteak*

“Nik ohea badadukat”

Haren bizitza burdindegiko sal-mahaiaren ondoan joan da, bezeria ona eta pozik, esker onean, eta halaxe seme-alabak hazi ditu eta orain bilobekin gozatu. Oporretan joaiteko premiarik inoiz ez inora, den-dena hementxe du eta: senideak, adiskideak, eta, Tomasek zioen bezala, ohe ona ere bai.

“Jendeak jo eta ke, bizkarra bero-bero egiten du gero oporretan, astebetetz, oro xahutzeko, edo asteburuetan nora edo nora joan eta azkenean turrin itzultzeko, ezer bagerik, esku hutsik”.

Amaia bilobak opor egun horiek noiz iritsiko eta norabait alde egiteko gogoia, berriz. Bizimodua oso aldatu da, eta Amurrion ere hagitz.

Margarik oraindik gogoan du burdindegia igandeetan ere ixten ez zenekoa, izan ere, batzuk meza ostean erostera joaiten ziren. Egungo egutegiak bestelakoak dira, aisialdiarekin hobeki eratzekiak, beste era batera bizitzen da.



Jubilazioaz gozaten ahizpakaz

Bezeroak, halaber, aldatu dira, “nire ustez hobera, zeren, lehen jenderik askok epeka edo zatika ordaindu behar baitzuen”.

Amama eta biloba, eta hau garrantziko, zerbaiten beharrea egonez gero inora bagerik Amurrión bertan edireiteko gai dira. Amaiak, sal-mahai baten ostean egon nahi ez inoiz, Bilboko enpresa baterako tele-lana egiten du, ez du Amurriotik inora joan beharrik, oporretarako ez bada, behintzat.

Margarik bezala, hementxe adiskideak, eta senideak, eta bizi ahal izaiteko zerbitzu guztiak eta inguru guztiz naturalean bizi da, baserrian ez baina. Egun, luxua da, gehiago ezin eska.



Margari, egun



- 1 Txakolina
- 2 Nerbioiko ur-jauzia
- 3 Paitar-museoa
- 4 Elexazar-ko erromatar aztarnategia
- 5 Zizak eta Artzainak



Amurrio

EZIN BESTE KOAK

6 Museo etnografikoa

7 Dorretxeak

8 Hiribildua eta Indianoak

9 Garrastatxu, baseliza eta ingurua

10 Kintoen jaia

1

Txakolina

Arabako Txakolina izendapenaren barruan, eta egun nazioarte mailan izen handiko ardoa delarik, Arabako txakolinaren historia XVIII. mendeko legeak bezain zaharra da, kanpotiko ardoaren aurrean hemengo hau babesten baitzuten.

Arabako Txakolina Elkarteak 1989an irasi zen, Amurrion egoitza eta bost herritako ekoizpena biltzen duena: Aiara, Artziniega, Amurrio, Laudio eta Okondo.

Amurrion mahastiak oraindik base-rrietako paisaiaren osagaiak dira, eta bi upategi nagusi dagoz: Bat Gara, Lezaman, eta Artomaña Txakolina, egun barrutik ikus daitekeen bakarra hau. Beronek mahastia ikuskatzeko aukera emaiten du, gero upategia bera eta gidaturiko dastaketa ere bai.

Argazkia: Txemi Llano ►







2

Nerbioiko ur-jauzia

Izadiak harritzen gaitu Amurrión eta Nerbioi ibaiaren iturburuak bereziki, kilometro batzuk beherago Bilboko ibai zabal bihurtzen dena, Euskadiko bazterrik idilikoenetako bat baita, 220taz – berrehun eta hogeitaz – metroko jauzi ikusgarria eginik. Iberiar penintsulan garaiena.

Ikusteaz gozatzeko, eurite mardul baten onodorean edo, udaberri aldean elurra urtzen denean joan behar da. Bestela, amildegí huts eta lehor bat besterik ez da, neguan bertan ere honela, urik bageko erroitz eskerga eta bihotz-erdiragarria. Uraren jauzteá goitik ikusi ahal da, Behatokia dagoen lekurean, Arando mendian.

Bertaratzeko A-2625 errepidetik igo behar da, eta mendaterantz hainbat bihurgune dagoen arren, ondo asfaltaturikoa da. Beste ikuspegi zirrargarri bat ere badago, Delikako arroila barrenetik, hain zuzen, ibaiaren ondorean doan mehaka edo mendarte liluragarria baita.

Argazkia, Xabier Ramos ▲



Amurrioko erdialdean, likore edo paitar edariari eskainitako museoa dago, Atxa sendiarena. 1831z geroztik, bost belau-naldi, Destilería Manuel Acha deritzon enpresak jardunen dirau eta katalogo zabalean 150 erreferentzia baino gehiago du.

Paitar arloan historia luzeko baltzua da, beraz, eta erreferente. Museoko ikuskatze bat eta antzinako paitarren edo edari indargarrien ekoizpen sistema zaharrera itzultze bat. Barririk, iragarkiak, kontabilitate-liburuak eta beste gauza batzuek behialako enpresaren hasieraren berri eta irudia emaiten digute, Euskadin bere arloan lehenbizikoa izan zen eta.

Karpy izeneko edari aho-gozagarria, laranja-azalez egindako paitarra, bertako

3

Paitar- museoa

ezagugai bat izan da, garai batean txirrindulari-talde bati ere izen emandakoa, 60 eta 70.-eko hamarraldian destilategiaren izena munduz mundu eraman zuena.

El Refor esaten dioten eraikinean Euskadin izan den lehenengo Txirrindu-Museoa ikusi ahal da, eta Karpy taldearen historiari gain, eskualde honetan zalerik gehien duten kiroltako baten bilakaera ikus daiteke.

Argazkia, Amurrioko Turismo Bulegoa ▲



4

Elexazar-ko erromatar aztarnategia

Elexazar, mendixka batean, antzinan erromatarren herrixka izan zen, Erroke Deunaren basilizatik gora, eta haren aztarrenak ageri.

Iritsi eta bertan, informazio-panel batek garai zaharretako berri emaiten du, I eta III. mendeen arteko biziera nolakoa izan zitekeen irudikatuz, azaldutako hiru eraikinen hormen artean.

Etxe nagusi bat dago eta lantoki izan zitekeen beste eraikin baterainoko bidexka ikusgai, harlauzezko espaloi bat hain zuzen. Lantoki, bertan tresna batzuk aurkitu zituztelako.

Erdiko larrain baten inguruan dagoen eraikinetako hirugarrena, ukuilu edo antzeko zerbait izan zitekeen, aberetegia edo. Zeramikazko hondar batzuk, zezen-buru itxurako “ara” edo gurtzeko gauza bat ediren zituzten (buru hori Gasteizko Bibat museoan dago)



- ▲ *Tarurobolio frontal (Zezen-buruaren kopeta)*
Egilea: Juanjo Hidalgo
- ◀ *Elexazar-ko txori-ikuspegia*
Egilea: Santi Yaniz



5

Zizak eta Artzainak

Izadziko bazterralde honetan, mendi eta baso, zizak haztea ohikoa da, urtaroa urtaroro, eta zizazale ugari, noski, herritarretan. Urterik urte, ziza eta honddo eta biltzen han-hor-hemen, bazterretik bazterrera ibili ohi direnen kopurua gora eta gora, aurkintza heze, umel, itzaltsu, basotsua... izaitea.

Non edo nontsu biltzen diren jakiterik ez dago, biltzaileak azken hatsean jakinarazi ezik. Isilpeko lana, nonbait, kiriketan-koroketan ibili behar.

Irailean, hirugarren igandean, Amurriok Artzain Eguna ospatzen du. Aitzakia ederra jende guztia artzainen eta ardién munduan murgil dadin, hor latxa endako abere-jendea, gazta gozoak, eta, batez ere, herrian ondo erroturik dagoen bizimodu batean, egun bakar batez bada ere, lagunartean murgiltzeko aukera.





6

Museo Etnografikoa

El Refor txit leku ezaguna da, eta barruan lau estai edo solairu museo etnografikoa edukitzekeo.

Asociación Etnográfica Aztarna elkarteak ondasun historikoa ikertzeko, hedatzeko eta sustatzeko xedea du, eta erakustoki horretan lehengo biziera zaharra, ohiturak, ekandua eta halakoak ikusi ahal dira, bai Amurriokoak bai Aiaralde osokoak, eta ikusgai hainbat gauza, nekazari-tresnak edo lanabesak, fosil handiak, mendiko aldare bat gudatean erabiltakoa, aulki-gerizgarriak, Euskal Zeramika Herritarraren bilduma garrantzitsu bat, e.a.



7

Dorretxeak

Udalerrian lau jauregi, jauretxe edo dorretxe ikusgarri dagoz: Mariaka dorrea, Artomañakoa, Jauregia deritzona eta Larrakoko jauregia. Eraikin hauek Amurrioren garrantzia nolakoa zen jakinarazten digute, Aiaraldean batik bat, beste garai bateko gizartean eta politika arloan; eta hor Ma-

riakako dorrea nabarmen, XIII. mendean eraikitakoa.

Kondairak dioenez, Mariakako Fabian, lugin edo baserritar hutsa, mairuen aurka, adorez eta kemenez, hainbat gatazkatan, borrokatan, gudutan irabazle eta garaitzaile gertatu izan zen. Artomañako dorrea ere Arabako historian leku estrategikoan zegoen. Jauregia Baranbion dago, Ugarte, Lekanda eta Arriaga leinu ospetsuena izan zen, garaian garaiko. Larrakokoa Lezaman dago, XVII. mendekoa da, Ugarte kapitainak eraikia, eta aldi haretako etxandi haien ahalgoaren isla da.



Herriak behialako eraikinez, izan zuen dir-dira islatzen du, eta nabarmenak batzuk: Urrutia jauregia edo Ugarteko dorretxea, egun kulturgunea. Eta ondoan modernitate ondo pentsatua, egungo herritarren bizi-molde erosorakoa.

Amurriok ez du galdu bere berdetasuna kale estuetan. Edozein zoko, bazter, alde, landarez apaindurik, ibil-bide on, Juan Urrutiaren loretegia, guztiz ere, erdi-erdialdean.

Etxeen artean, halaber, indianoen etxe batzuk ere ikusgai, Ameriketara, Indietara alegia, diruaren hotsean joan eta aberats itzuli zirenen herritar burgoiek eraikitako etxe orduan berri egun zaharrak. Jaure-

8

Hiria eta Indianoak

txe antzo, tankera bakan, ederrak bezain arranditsuak.

Isusi-tarren sendiarena bat, Campo Menoyo-tarrena beste bat, Villa Margarita, Villa Tobalina, Villa Fe, edo Justo Saratxagaren etxandi zaharra, besteak beste.



9

Garrastatu, baseliza eta ingurua

Garrastatu, behin ikusiz gero ahantzi inoiz ez. Gorbeia Parke Naturalaren barruan, Andere Maria Errukiñeren baseliza bertan nagusi, inguru alde eder-ederrean, ikuspegia ere halakoxea.

Amurriotik hamabost minutura, beribilez, Baranbion, eta handik hara ibilteko

bideak nahi beste. Baseliza ondoan larrain zelai bat, aire zabalean mahaiak, jarlekuak, sutokiak... eta asteburu-jaiegunetan taberna zabalik: Garrastatxuko txosna.

Giro ederra, berriz, areago, taberna berexi horren ondoan Eztiaren Jaia edo Garrastatxuko Rock Fest delakoa, edo folk-musikal-diak ospatzen direnean.

Gabonetan edo aurretik eskaturik menuak eskeintzen dira, paellak bereziki. Egun izen handiko bat Ahuntzaren Eguna da, ahuntzen sariketa eta herri-bazkaria eta guzti.

10

Kintoen Jaia

Kintoen jaia, lehen, mutilen eguna zen, orain “neskeneguna” ere bai. Hasieran, soldadutzara joan beharra zuten gizasemeek ospatzen zuten eguna, edo gaua, zen, baina garaian garaikoa eta gazteen jaiegun bihurtu da, 18 urte betetzean, dela mutil dela neska.

Kuadrilla edo lagunarte batzuetan baturik, kantari kaleetaraten dira, urtarrilak 4, Agate Deunaren aurregunean, zein nahi egun den ere, euri nahiz ateri, ihurtzuri nahiz oskarbi. Udallerriko bazterretan zehar, diru eskean edo baserrietan eman nahi dieten guztia

jasoz (arrautzak, zistorrak, lukainkak...)

Hurrengo ostiralean, berriz ere kantari lantegiz lantegi, eskoletan, eta eguerdian herriko plazan edo loretegian iruzten, elkartzen dira. Arratsaldean, bildutakoarekin, herrian jai bete: kalejira, musikaldiak eta dantzaldia.

Jose Mari Irabienek 62an kantatu zuen. 28 mutil zirela gogoratzen du, eta talde batzuetan banandu zirela : “batzuk leku batera eta beste batzuk beste batera, eta beti oinez, eta izugarriko izozte edo leia zegoela”. Aspaldi haietan basetxeetan diru gutti, hurrengo ostiralean lantegietan bai, ugarittoago biltzen zuten, eta gaitz erdi: arratsaldeko jaietarako lain.

Makila, txapela eta blusa, eta kalera. Muina betiko bera da, arrakasta ohikoa haran osoan, lehen bezala orain.



Amurrio zenbakietan

Herriak


Delika · Artomaña ·
Tertanga · Larrinbe ·
Lezama · Baranbio ·
Saratxo · Aloria ·
Lekamaña

Beste datu batzuk

10.281 bizilagun - 2024
1.207 bizilagun (1900)
100 txakolin-hektareak
2 txakolin upategi
65 taberna-jatetxe
12 aloka-toki

Amurrio

- ◀ ● ● 42 Km ● ▶ Gasteizera
- ◀ ● ● 31 Km ● ▶ Bilbora
- ◀ ● ● 118 Km ● ▶ Donostiara
- ◀ ● ● 132 Km ● ▶ Iruñera



Arabako Herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean

